

IKASTOLAK



2008 URRIA

Informatzen

LAKUA AURREAN ELKARTERATZEA

2008-2009ko lehenbiziko mobilizazioa burutu dugu gaur, LAB eta ELAko delegatuok bertan egon gara.

LABeko eta ELAko ordezkariak Hezkuntza Saileko bulegoetara hurbildu gara, beraiekin biltzeko asmotan eta gure aldarrikapenen berri emateko.

Bulegora sartu garenean, Hezkuntza Saileko zuzendaritzako kide batek, gure harridurarako, adierazi digu sindikatuko kideekin ez dutela ohiturarik biltzeko, hala ere, LAB eta ELAk exigitu diegu bilera bat egitea. Lotsagarria iruditzen zaigu, oraindik orain, bai ikastoletako eta ekimen sozialeko langileen ordezkariekin harremanik ez izatea usteko finantziazio baten aurrean, non gure lan baldintzak jokoan dauden.



Hezkuntza Saileko zuzendaritzako kide honek konpromisoa hartu du egoera hau aztertzeko. Sindikatuko kideok adierazi diegu datorren astean gure berri izango duela erantzuna jakiteko, bestela beste neurri batzuk hartzera behartuta egongo ginateke.

Beste aldetik, datorren astelehena, urriak 13an, ikastoletako Lan Hitzarmeneko mahaia bilduko da.

ADI ETA ZABALDU INFORMAZIOA!!!

